

FUNTSEZKO JARDUERAK

8.1. FUNTZEZKO JARDUERA

Gure proiektua desgaitasunak dituzten ikasleei eskolan integratzen laguntzea eta haien beharrianak asetzea du helburu nagusi. Zehazki, dislexia, TDAH, ikusmen urritasuna eta entzumena galtzen duten ikasleentzako zerbitzuak eskaintzea dugu helburu. Gure aplikazioaren bidez, ikasle horiek modu berdinean sartzeko eta parte hartzeko aukera izango dute, hau da, hezkuntza inklusibo bat eskaintzea. Jarduera honen bidez, ez dugu soilik negozio bat kudeatzen, baizik eta gizartearen aldeko misio bat betetzen dugu, desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetuz eta gizartean inklusioa sustatuz. Horregatik, gure enpresak ez du soilik balio ekonomikorik, baizik eta gizarte-mailako inpaktu handia du, eta gure helburua da aldaketa positibo bat sortzea desgaitasunak dituzten ikasleen bizitzetan.

8.2. BIGARREN MAILAKO JARDUERA

Gure bigarren jarduera aplikazioaren garapena da. Aplikazio honek desgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko eta eskolan modu inklusiboan integratzeko sortu da, ikasle guztiek baldintza berdinak izateko. Adibidez, ikusmen urritasuna duten ikasleentzako, adimen artifizialaren bidez, irakasleek esaten dutena idatziz agertuko da, irakurketa errazteko. Dislexia duten ikasleentzako, joko interaktibo bat erabiliko da, azalpenak modu egokian ordenatzeko. TDAH duten ikasleen kasuan, informazioa modu bisualean antolatuko da, irudiak, koloreak eta testuak azpimarratuta, arreta mantentzeko eta ulermena hobetzeko. Itsuentzako, brailezko kodeak integratuko dira aplikazioan, euren ikaskuntza prozesua errazteko. Aplikazioa ikastetxeekin lankidetzan garatuko da, ikasleen beharrak eta egoerak aztertzeko eta aplikazioaren funtzionalitatea hobetzeko. Hasieran, aplikazioa ikastetxe bat edo bi-tan ezarriko da, eta behar izanez gero, aplikazioa egokitu egingo da ikasleen beharren arabera, laguntza pertsonalizatuagoa eskaini ahal izateko.

8.3. ENPRESA PROPIOA

Gure aplikazioa garatzeko, independenteak gara eta ez gaude beste enpresaren menpe. Horregatik, enpresa propioa kudeatzen dugu, langileak kontratatuz eta gure helburuak lortzeko lanean jartzen ditugu. Langileek lan kontratu pribatu baten bidez izango dute erregulazioa. Era berean, hornitzaileekin lankidetzan dihardugu, gure enpresatik kanpo lan egiten dutenak, hala nola, teknikariak, aplikazioa sortzea eta sortzen diren arazo

teknikoak konpontzea lanetan aritzen direnak. Horrez gain, ordezkari bat kontratatuko dugu, gure enpresaren ordezkari izango dena, eta gure zerbitzuak sustatzeaz eta ideiak zabaltzeaz arduratuko da. Horrela, aplikazioa ahalik eta eskola gehienetan ezarriko da, eta horrek, aldi berean, gure enpresarentzako onura ekonomikoak handituko ditu. Beraz, langileak eta kolaboratzaileak aukeratzekoan izandako hautaketa prozesua funtsezkoa izango da, izan ere, horrek izango du eragina gure aplikazioaren arrakastan eta enpresaren etorkizuneko hazkunderan.

